

Gasteizko atxiloketen harira

ASKE :: 26/07/2022

Atzo Gasteizko hiria 3 gazteren atxiloketaren berriarekin esnatu zen. Hedabide ezberdinek zabaldutako intoxikazioak alde batera utzita, uztailaren 24an tabernan jazotakoa, pertsona baten probokazioen ondorioz emandako ika-miken testuinguruan eman zen, besterik gabe. Atxilotutako pertsonak, pertsona horren jarrera probokatzailiaz haratago, ez zuten bere inguruko bestelako informaziorik.

Hala ere, Euskal Herria jazartzen duten politikariek eta jazarpen hau betikotzeko egunero lanean diharduten euren morroiek azkar zabaldu zuten jazotakoaren inguruko euren bertsioa. Gertakariak eragin zituen probokatzailaren zipaio izaera azpimarratu eta tabernako ika-mikaren motibaziotzat jo zuten, era faltsuan, ezohikoa ez zen gertakari bat magnifikatu eta desitxuratuz, bere larritasuna eta oihartzuna handitze eta etekin politikoa ateratze aldera.

Izan ere, Gasteizen gertatutakoa, aurretik Mutrikuko jaietan jazotakoaren harira burututako kanpainaren jarraipen gisa ulertu behar dugu; etsaiaren estrategia argia baita, Euskal Herri Langilea jazartzeko biolentzia edota honen mehatxua darabiltenen profesioa zuritu eta euren figuraren presentzia normalizatzea. Are gehiago, jazarpena ogibide dutenak zuritzez ez ezik, biktimatzat saldu nahi dizkigute horretarako. Euskal Herrian, tamalez, ez da lehenengo aldia taberna esparrura mugatutako iskanbila bat Euskal Herri Langilearen aurka jotzeko baliatzen dena, hau era guztiz faltsuan polizia izateagatik eman denaren aitzakiapean.

Gasteizko atxiloketak, Euskal Herriak nazionalki zein sozialki azpiratuta mantentzeko pairatzen duen okupazio militarren kontestuan kokatu behar ditugu, halabeharrez. Izan ere, atxiloketak burutzeko orduan, atxilotuetako batek hainbat kolpe pairatu zituen poliziaren aldetik, kotxera zeramatenean. Era berean, zipaioek atxiloketa aldian Espainiako himnoa jarri zieten, era jarraian ziegako argiak piztuta mantentzearekin batera, noizbehinka ateari kolpeak ematen zizkieten bitartean, atxilotutako gazteek lo hartzea ekiditeko xedez. Honen aurrean, ASKE antolakundeak ondorengoa adierazi nahi du:

- Hasteko, gure elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu atxilotutako 3 pertsonari. • Bestalde, gogor salatu nahi dugu gertakariak manipulatzeko eta gezurak zabaltzeko ari diren politikari ezberdinen jarrera. • Era berean, gertakariak argi utzi dute biolentzia, jazarpena eta beldurra zeinen eskutik datorren, eta zeinek baliatzen duen bere posizioa hau zabaltzeko. • Txakurren inpunitatea ekidite aldera, salaketa eta mobilizazioa Euskal Herri Langilearen tresna politikoak izan behar dira. Argi utzi behar zaie txakurrei ez ditugula euren praktika mafiosoak onartuko.

Argi utzi nahi dugu Euskal Herri Langilearen aurka dihardutenek ez dutela lekuri gure kaleetan, herri langilearen partetik mespretxu osoa merezi dutelarik. Gauzak horrela, ASKE-k, atxilotuei elkartasuna adierazi eta eraikitzen ari diren muntai poliziala salatze, gaur, arratsaldeko 19:30ean, Gasteizko Farolonen burutuko den kontzentrazioan parte hartzeko deia luzatzen du.

Muntai polizialik ez! Atxilotuekin elkartasuna!

<https://eh.lahaine.org/gasteizko-atxiloketen-harira>